

# Sexu-praktika arriskutsuen irudikapen soziala gazteengan

Uzuri Castelo<sup>1</sup>, Martin Sainz de la Maza<sup>1</sup>, Iduzki Soubelet<sup>1</sup>,  
Lorena Gil de Montes<sup>2</sup> eta Maider Larrañaga<sup>2</sup>

Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila, <sup>1</sup>EHUko Psikologiako ikertzaile doktoregaiak, <sup>2</sup>Psikologiako irakasleak

Gazteek sexu-harremanei begira arrisku-praktikekiko duten irudikapena jorratzea helburu duen ikerketa da honakoa, irudikapen sozialen teoriaren ikuspegi dialogikoan oinarrituz. Euskal Herrian bizi diren 101 gaztek parte hartu dute ikerketan. Emaitzen arabera, arriskuaren esanahia hiru gunetan kokatzen da. Hain zuzen, gorputzari, testuinguruari eta harreman sozialei loturik. Irudikapena bost esanahiaren artikulazioaren bitartez osatzen da: gorputzua – gorputzugabea, fusioa – banaketa, self – bestea, segurtasuna – segurtasun eza eta desira – betebeharra. Ondorioetan, arriskuaren eguneroko ezagutzaren eraikuntzari begirako inplikazio teorikoak eztabaidatzen dira, praktika sexualetan arriskua ekiditeko estrategia prebentiboak bideratzeko kontuan hartu beharreko alderdiei erreparatuz.

GAKO-HITZAK: Arriskua · Irudikapen sozialak · Sexu-praktikak · Ezagutza dialogikoa.

## Social representations of sexual risk practices among youth

The present study elaborates on young people's everyday understanding of risk practices in sexual relationships, using a dialogical approach to the theory of social representations. Those participating were 101 female and male youngsters living in the Basque Country. The results show that the meaning of risk lies in three dimensions: body, situated context and in the social relations. Five meaning system structure these representations: embodied vs. disembodied, fusion vs. separation, self vs. other, certainty vs. uncertainty, actual vs. ought. Theoretical implications regarding commonsense conceptions of risk and the necessity to apply to contexts of intervention are discussed.

KEY WORDS: Risk · Social representations · Sexual practices · Dialogicality.

## 1. Sarrera

Sexu-harremanen barruan arriskuaren kontzepzioan aldaketa kultural eta historikoez eragin nabarmena izan dute. Besteak beste, arriskuari lotutako ezagutzan eta sinesmenetan teknologia berrien erabilerak, prebentzio-estrategia berrien aurkikuntzak edota sexu-transmisiozko gaixotasunen inguruko ezagutzen garapenak aipagarriak dira. Zentzu horretan, bereziki interesgarria da egungo gazteek sexu-harremanetan arriskuaren inguruan duten ezagutza aztertzea. Izan ere, gaixotasun sexualen transmisioa saihesteko esku-hartzeak eraginkorrak izan daitezzen, garrantzitsua da publiko zabalari zuzenduriko prebentzio-mezuak esanguratsuak diren ala ez ikustea (Wagner, Duveen, Verna, eta Themel, 2000). Hala, sexu-harremanen arriskuaz jakinaraztera bideratuak dauden prebentzio-mezuak arrakastatsuak izan daitezzen, aurreikusiak dauden ikusleek dituzten arrisku-kontzeptuak aintzat hartu behar dituzte. Tradizionalki, arriskua sexu-harremanetan haurdunaldi ez desiratuekin eta sexualki transmititutako gaixotasunekin lotu izan da, eta, dirudienez, ondorio horiek ekiditeko, kondoia da mekanismo onartuena (Sheeran, Abraham eta Orbell, 1999). Osasun-babeserako kanpainak uste horietatik abiatuta diseinatzen dituzte, jendea jokabide osasuntsuetara bideratzeko asmotan (Lehmann eta Töppich, 2009).

Arriskutsuaren kontzepzioa ezberdina izaten da testuinguru soziokulturalaren arabera (Campbell eta Jovchelovitch, 2000; Joffe, 2003). Sexu bidez transmititutako gaixotasunei dagokienez, babestu gabeko sexu-harremanak edukitzeko erabakia-rekin loturik irudikatzen da arriskua, eta kasu horietan, erru-sentimenduak ager daitezke (Herek, 1999; Joffe, 2003). Sentimendu horiek sozialki eta normatiboki zuzena eta okerra denaren ulermenari loturik agertzen dira, eta exo-taldeak estigmatizatzeke ikusmoldeekin lotura dute (Herek, 1999; Joffe, 2003). Arrisku-jokabideei buruzko literaturak iradokitzen du jendeak estrategia psikologikoak bilatzen dituela bere burua babesteko, nahigabeko ondorioek sortzen dituzten larritasunen aurrean. Pertsonak erabiltzen duten mekanismoetako bat mehatxuarekiko distantzia markatzean datza. Honakoa, *self* eta *besteen* arteko distantzia nabarmentzearen bidez egiten da (Joffe, 2003), *besteen* arrisku-praktika bezala definituz (Howarth, Foster, eta Dorrer, 2004). Norbanakoaren identitatearen babesa, mehatxuaren iturria *besteari* egotziz egiten da.

Irudikapen sozialen teoriaren arabera (Howarth, 2006; Moscovici, 1984), pertsonak ezagun dituzten fenomenoei zentzua ematen ahalegintzen dira; hala gertatzen da arriskuaren inguruko irudikapenekin ere. Autore batzuei jarraikiz (Joffe, 2003; Liu, 2004), arriskuaren esanahia malgua, soziala eta polemikoa da, eta haren irudikapena balio kultural eta sinesmenetan oinarritzen diren esperientzia eta praktika sozialen artean eraikitako ezagutzaren emaitza da (Edelman, 2018; Jovchelovitch, 2007; Smith eta Joffe, 2013). Hortaz, jendeak arriskuaren kontzepzio polifasikoa du. Hau da, arriskuaren kontzepzioa esanahi ugariaren bidez osatzen da, eta esanahi batzuk bata bestearekin bateragarriak diren bitartean, beste batzuk kontrajarriak dira (Jovchelovitch, 2007; Markova, 2003).

Epistemologikoki, irudikapen sozialen ikuspuntu dialogikoak arriskuari buruzko ezagutza sozialki nola partekatzen den aztertzea ahalbidetzen digu. Horrela, arriskuaren inguruko ohiko ezagutzan kokatzen diren esanahien jatorri eta erroan arakatur. Sexu-praktika arriskutsuen kasuan GIBaren inguruko ezagutza komuna esaterako, heriotza-bizitza eta garbitasun-zikinkeria bezalako esanahietan oinarritzen dela esaten da (Markova, 2003). Kontzeptu horiek *themata* edo gai deituriko oposizio-elementu gisara artikulatzen dira (zeinaren singularrak *thema* diren). Gaiok esanahien izaera dialogikoa ikusarazten dute, beren arteko tentsio, gatazka eta elkarrekikotasuna agerian utziz.

Irudikapen sozial oro testuinguru jakin batean garatzen da (Jovchelovitch, 2007). Hala, arriskua eraikuntza dialogiko bat bezala ulertzeak, elkarriketan oinarritua, bere esanahia testuinguru konkretuan kokatzea ahalbidetzen digu (Linell, 2009). Harreman sexualetan pertsonak arriskuari esleitzen dioten esanahia, abstrakzio bat izatetik haratago, erreala bilakatzen da kide sexualarekin egoera jakin batean aurkitzean.

Ikuspegi dialogikoak arriskuaren esanahia gorputzaren dimentsioan kokatzen du. Gorputzaren inguruan dauden irudikapenek, haren inguruko irudikariak eta pertsonak gorputz-ukipenekiko dituzten sinesmenek arriskuaren ezagutza kokatua eratzen dute (O'Connor, 2016). Literaturan, gorputzaren eraikuntzaren gaia galdera nagusitzat jo izan da sexu-transmisioko gaixotasunen inguruko irudikapen sozialen lanketa egiterakoan (Joffe, 1998).

Bestetik, elkarriketak bikotekidearekin izaten dira, eta bertan, arriskua negoziatu eta irudikatu egiten da. Hau da, harremana kontratu sozial bat da eta bertan normatiboak izango diren portaerak definitzen dira (Fiske, 1992). Harremani loturiko arriskua, beraz, harreman mota ezberdinek dituzten inplikazio moralei atxikirik agertuko da (Rai eta Fiske, 2011). Esaterako, elkarrenganako konfiantza oinarritzat hartzen duten harremanetan, jendeak ez du gaixotasun bat transmititzeko arriskua dagoenik hautematen. Aldiz, sexu-harremanerako behin-behineko kideekin, kondoiaren erabilera normatiboagotzat jotzen da (Rhigetti, Luchies, van Gils, Slotter, Withcher eta Kumashiro, 2015).

Azkenik, elkarriketak momentu zehatz batean eta testuinguru jakin batean bakarrik uler daitezke (Linell, 2009). Testuinguru-egoera bakoitzean arau sozio-kultural ezberdinak daude eta horien arabera sexu-harreman babestuak edukitzea egokitzen, zuzentzen edo konbentzionaltzat joko da. Berez, harreman sexual babestuak planifikatu eta deliberatutako harremanak izan ohi dira, bikotea egonkorra izan edo ez. Era berean, jokabide babesgabeen inguruan egin diren ikerketek erakutsi dute kondoiaren erabileraren hutsegiteak testuinguru jakinetan areagotzen direla; maiz jai-giroan, alkoholaren eta drogen gain-kontsumoa izaten den egoerei lotuta hain zuzen ere (Vizeu eta Bousfield, 2009).

Ikerlan honetan ikasle gazteek arriskua harreman sexualetan nola irudikatzen duten aztertu nahi da. Hau da, arriskuaren esanahiaren eraikuntza soziokulturala nola gauzatzen duten aztertu, egunerokoan arazoa nola kudeatzen duten hobeto ulertzeko asmoz.

## 2. Metodologia

### 2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan Euskal Herrian bizi diren 101 gaztek parte hartu dute (erdia emakumezkoak izan dira eta beste erdia gizonezkoak). Parte-hartzaileen adin tarte 18-21 urte bitartean kokatzen da, batez besteko adina 20,4 urtekoa izan da (DS=2.53). Lagina Euskal Herriko Unibertsitateko bigarren mailako eta Lanbide Heziketako bigarren kurtsoko ikasleek osatu dute, Informatika Zientzietan eta Elektrizitatean matrikulatuak. Ikasle guztiak euskaraz eta gaztelaniaz elebidunak dira eta haien hautazko hizkuntzan parte hartu dute.

Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen onospena jaso du. Parte-hartzaile guztiak baimen informatuaren onospena eman dute eta ikerketa-prozesuaren baitako beren eskubideei buruzko informazio guztia esplizituki azaldu izan zaie.

### 2.2. Datu-bilketa

Gazteek sexu-praktikei loturik duten arriskuaren irudikapen soziala aztertzeko, hitzen asoziazio bidezko metodoa erabili da, irudikapen sozialen ikerketan «Grid elaboration Method» (GEM) izenez ezaguna (Joffe eta Elsey, 2014; Joffe, 1996). «Arriskua sexu harremanetan» estimulari erantzun diote parte-hartzaileek. Metodo hau gai espezifikoetara buruz pertsonen bat-bateko pentsamendu eta sentimenduak jasotzeko erabiltzen da eta oso erabilgarria da sexu-arriskuaren inguruko esanahietan sakontzeko.

Parte-hartzaileei orrialde batean argibideak aurkeztu zaizkie eta, argibideekin batera, lau laukitxo ageri dira. Argibideetan, parte-hartzaileei jarritako estimuluaren aurrean burura datozkien edozein testu idazteko edota irudi bat marrazteko eskatu zaie. Laukitxoetan edukiak burura etorri zitzaizkien hurrenkeran jartzeko esaten zaie. Ondoren, ikerlariak parte-hartzaileei haiek egindako ekarpenetan sakontzeko galderak egin dizkie, jarritako edukiei buruz informazio eta azalpen gehiago biltzeko helburuarekin.

### 2.3. Datu-analisisa

Irudikapen sozialen teoria ikuspegi sozio-konstruktibista *ahul* batean oinarritzen den teoria bezala ezagutua izan da. Ikerketa-tradizio honetan analisi tematikoa (Braun eta Clarke, 2006) teknika egokitzat jotzen da parte-hartzaileen berehalako ezagutzetatik sortzen diren eduki eta gaiak aztertzeko. Kodifikazio-prozedura modu induktiboan eraman da aurrera eta ateratako gaiak edo *themek* arriskuaren kontzeptuaren esanahia egituratu dute. Hau da, informazio guztia semantikoki kodifikatu ondoren, gai nagusiak identifikatu eta azalpen interpretatiboa egin da. Azkenik, analisi-prozesua ixteko, *thematzen* inguruko literaturaren bilketa egin da (Jovchelovitch, 2007; Markova, 2003) emaitzak egituratzen laguntzeko.

Datu-analisia, informazioa transkribatu ostean, Atlas-ti software-programaren bitartez antolatu da. Ondotik, ikertzaile batek aurrekodikazio-gida sortu du, kode bakoitzari eman zaion azalpenarekin batera. Kodifikazio-gida beste bi ikertzaileekin eztabaidatua izan da eta adostasun batera heldu da. Kodifikazio-gida zehaztu ondotik, bi ikertzailek nork bere kabuz, *korpus* lexikala kodifikatu dute eta, ostean, testu-unitate bakoitzari emandako kodeak alderatu dira. Erantzunak esaldika aztertu dira, esaldi bakoitza hiru kode ezberdinekin kodifikatzeko aukera emanez. Bi ikertzaileek independenteki esaldien kodifikazioak egin ostean, amankomunean jarri dituzte eta % 74ko kointzidentziara iritsi dira. Kodifikazioen desadostasunetan hirugarren ikertzaile batekin batera adostasuna bilatu da eta taldean fenomenoaren inguruan sortzen diren gai nagusien egokitasuna adostu da.

### 3. Emaitzak

Parte-hartzaileen diskurtsoan, arriskua hiru gunetan artikulatzen da: batetik, gorputzetan, *gorpuztua-gorpuztugabea* theman. Bestetik harremanetan, *fusioa-banaketa* eta *self-beste*a thematetan. Eta azkenik testuinguru-egoera konkretuetan, *segurtasuna-segurtasun eza* eta *desira-betebeharra* izendatutako thematetan.

#### 3.1. Arriskua gorputzetan: gorpuztua eta gorpuztugabea

Arriskua gorputzaren baitan kokatzen da eta praktika sexual espezifikoeekin lotzen da. Hau da, batetik, ikusi da gazteen diskurtsoan arriskua gorputz-kontaktuarekin, fluxu sexuarekin eta garbitasunarekin lotzen dutela. Elementu horiek gaixotasun eta kutsaduraren ideiarekin lotzen dira (Markova, Wilkie, Naji eta Forbes, 1990). Parte-hartzaile batek zioenari helduz: «Ondo ezagutzen ez dituzun pertsonak fluxuen bitartez transmititu ditzakete gaixotasunak» (gizona, 18 urte). Bestetik, arriskua praktika sexual espezifikoeekin lotzen da. Batez ere sarketen bidezko praktikak aipatzen dira, bagina edota uzki bidezko koittoa. Bestalde, zenbaitek ezohiko sexu-praktikak aipatzen dituzte, «Sexu gogorra (*hardcore*) egiteak arriskua suposa dezake, neska minduta atera daiteke eta» (gizona, 18). Azkenik, normatiboak ez diren kide sexuarekin lotura ere egiten da (homosexuala), heterosexualak ez diren harremanak arriskuarekin bereziki uztartuz.

#### 3.2. Arriskua harremanetan: fusioa-banaketa eta self-beste

Fusioaren eta banaketaren arteko tentsioa izan daiteke arriskuaren inguruko irudikapen soziala eraikitzen laguntzen duen ardatzetako bat, eta haren zentzua alda daiteke pertsonen artean sortzen den harreman motaren arabera (Fiske, 1992). Gertutasunezko harremanetan fusioa gertatzen da, non harremanak estuagoak eta iraunkoragoak diren. Parte-hartzaileek ezagunak diren bikote sexualak aipatzen dituzte. Harreman hauek elkarrekiko errespetuan eraikiak direla hautematen da. Parte-hartzaileek esplizituki adierazten dute harreman hauetan pertsonak beren arteko konfiantza izatea espero dela eta zintzoki komunikatzea izan litezkeen gaixotasunak. Hortaz, arriskutik babestuago dauden harreman moduan ulertzen dira. Honako aipuak dioten moduan: «Zuk harreman egonkorra badaukazu pertsona

batekin eta sexu-bidezko gaixotasunik ez duela baldin badakizu, beste antisorgailu metodo batzuk erabil ditzakezu» (emakumea, 21 urte). Harreman hauetan pertsonak seguru sentitzen direla adierazten dute, eta, beraz, kondoia ez erabiltzearen erabakia konfiantza eta egonkortasunaren bidez arrazoitzen dutela ageri da.

Berdinen arteko harremanetan, nolabaiteko banaketa gertatzen da, atxikimendu emozionala ez baita horrenbeste gailentzen. Harreman hauen baitan, elkartzeko sexual berriak, ustekabeko bikote eta lagunak leudeke. Harreman-eredu honen baitan, gehien aipatu den kategoria bikotekide ezezagunena izan da, eta parte-hartzaileek kide sexualaren osasun-egoeraren inguruko ezjakintasuna existitzen dela onartzen dute. Ziurgabetasun-maila altua izatean, babestu gabeko jarrera sexualak potentzialki praktika arriskutsu moduan irudikatzen dituzte parte-hartzaileek: «Kutsatu egin zaitezke, nahiz eta larria ez izan, ondo bat adibidez» (emakumea, 21 urte).

Azkenik, kideen arteko botere-harremanak antzematen diren harremanetan, fusioa zein banaketa gertatzen da. Kategoria honen pean sar litezkeen diskurtsoak kondoia erabileraren inguruko erabaki aske eta autonomoa izatearen zailtasunekin lotzen dira. Esate baterako, parte-hartzaile batek aipatzen du «zerbait egin nahi ez duzunean, zure bikotearen erantzuna edo jarrera zein izango den izatearen beldurra» (emakumea, 18 urte). Beste batzuek ere aipatzen dute emakumeek maiz, bikotekideak (gizona) kondoia ez erabiltzeko duen desioari bide ematen diotela. Harreman mota hauek genero-harremanetan existitzen diren botere-asimetrien islatzat interpretatzen ditugu.

Bestalde, identitatearen babes-estrategia moduan, sexu-praktiketan arriskuak duen irudikapen soziala *self-beste*a gaiari lotuta ere agertzen da. Diada hori arriskuaren inguruan egin izan diren ikerketetan ere aipatua eta eztabaidatua izan da (Joffe, 2003; Flores eta de Alba, 2006). Ikerlan honetan parte-hartu duten gazteek behin eta berriz kontrajartzen dituzte beraiek izaten dituzten praktika sexualak, beste pertsona edo talde batzuek izaten dituztenekin. Psikologikoki, beraien (kontziente eta arduratsuak) eta besteen (praktika sexual arriskutsuak dituztenak) arteko ezberdintasuna ezartzen dutela agerian gelditzen da. *Beste*aren kategorizazioaren barruan, informaziorik ez duten pertsonen, arduragabeki jokatzeko dutenei edota ezaugarri pertsonal eta psikologiko ahulekin lotutako pertsonen buruzko diskurtsoa ageri da; haien hitzetan «adin txikiko pertsonak, autoestimua baxua duten pertsonak eta norbere burua maite ez dutenak» dira (gizona, 18 urte).

### **3.3. Arriskua egoera konkretuetan: segurtasuna-segurtasun eza eta desira-betebeherra**


Parte-hartzaileen diskurtsoaren baitan pisu nagusia izan dute segurtasuna-segurtasun ezarekin lotutako edukiek. Parte-hartzaile gehienek kondoia erabileran arriskua ekiditeko lehen estrategia moduan aipatu dute. Kondoia erabiltzearen erabakia arrisku-praktikak saihesteko duen eraginkortasunaren inguruko sinestuetan oinarritzen da. Esaterako, kondoia prebentzio-neurri moduan erabiltzearen

erabakia kondoaia modu egoki eta seguruan erabiltzearen araberakoa izan daitekeela baieztatu da. Akatsa duten kondoiak erabiltzearen arriskua zulo txiki zein handiak agertzen diren irudiekin lotu dute parte-hartzaileetako askok, honako aipuan ageri den bezala: «Kasu batzuetan kondoiak giltzekin batera gordetzen dira poltsikoan eta hau arriskutsua izan daiteke sexu-bidezko gaixotasunak transmititzerako orduan edota nahi ez den haurdunaldia eragiteko» (emakumea, 19 urte).

Arriskuaren inguruko ikerketa klasikoan arabera, arriskua, gertakizun mingarri bat gertatzearen probabilitatea dagoenean agertzen da. Ideia horrekin bat, parte-hartzaile gehienek harreman sexualetan arriskua bi ondorio negatiboren bizipen-aukerarekin lotzen dute: sexu bidezko gaixotasunarekin eta nahigabeko haurdunaldiekin. Sexu bidezko gaixotasunetan, besteak beste, HIESA moduko gaixotasunen aipamena egin da, dakartzan ondorio fisiko eta psikologikoak nabarmenduz. Ondorio psikologikoak, pertsonak emaitzen berri izan aurretik bizitzen dituzten emozio negatiboekin lotu dituzte, esaterako, kezka, beldurra, lotsa, errua zein damua. Honela adierazten du parte-hartzaile batek: «Gaixotasun asko kutsakorrak izan daitezke eta ez gara horietaz konturatzen, gertatzen zaigun arte. Orduan, ondorioez jabetzen garen heinean, gure ekintzez damutzen gara» (emakumea, 19 urte). Ondorio fisikoak, berriz, bizitzak bira ematearen ideiekin lotzen dira, bizitza-aldaketa gogorrekin eta heriotzarekin. Nahi ez diren haurdunaldien kasuan, alde batetik, ondorio emozionalei egiten zaie erreferentzia; haurdunaldiaren berri guraso eta lagunei ematearen atzetik dagoen pisu emozionala nabarmentzen da, kezka, tristura, lotsa eta babesgabetasun-egoera bizi dela aipatuz. Honela adierazten du parte-hartzaile batek: «Txarrena da neskak bat haurdun geratzen denean, mutilak paso egin dezake, baina neskak bere gurasoei eta lagunei berria eman behar die, eta hori oso gogorra da berarentzat» (emakumea, 18 urte). Bestalde, ondorio fisikoak batez ere haurdunaldia etetearen ondorioekin eta abortuarekin lotzen dira.

Egoerari loturik identifikatutako beste gaia *desira-betebeharra* gisa izendatu da. Gai horrek bi ahotsen artean izaten den gatazka irudikatzen du. Alde batetik, *betebeharra* izendatzen den ahotsa, kontzientzia, egoera arriskutsua hauteman eta hari aurre egiteko prebentzio-estrategien erabilerarekin lotuta dago. Aldiz, *desira* izeneko ahotsak egoeraren, unearen garrantzia eta helburua irudikatzen du. Esaterako, plazera bilatzea, ondo pasatzea, bat-bateko portaerak, etab. Ikerketa honetan, parte-hartzaileek arriskua alkohol eta drogen gain-kontsumoarekin lotzen dute. Alkoholaren kasuan pertzepzioa distortsionatu, arrazoiketa-gaitasuna ahuldu eta arriskuaren kontzientzia gutxitzen da. Ondorioz, arriskuarekiko dagoen beldurra murriztean, sexu-praktika arriskutsuek izan ditzaketan ondorio negatiboak aintzat ez hartzea aipatzen da aipu honetan: «Alkohola edo drogak hartzen direnean, errealitatea distortsionatzen da; beldurra kentzen da eta normalean egingo ez nituzkeen gauzak egin ditzaket» (emakumea, 24 urte).

Jarraian aurkezten den irudian, arriskuaren esanahietan aurkitu diren hiru guneak ikusarazten dira. Gune bakoitzari lotuta, parte-hartzaileek plazaratutako ideia nagusiak adierazten dira:



**1. irudia. Arriskuaren irudikapena sexu-praktiketan. Dimentsioak eta esanahiak. Iturria: guk geuk egina.**

**4. Eztabaida**

Lan honetan gazteek praktika sexualen arriskuaren kontzientzia badutela azaltzen da, eta beraz, arriskua saihestu dezaketela uste da. Arriskuaren prebentzioari buruzko ikuspegi errealista dute eta, gaur egun, praktika sexualeri dagokienez, kondoia estrategia prebentibo eraginkorra kontsideratzen dute. Aurrez egin diren ikerketek erakutsi dute kondoiaren erabileraren inguruko jarrerak aurreikusteko portaera-teoria nagusiek duten egokitasuna (Albarracin *et al.*, 2001). Horien arabera preserbatiboaren erabileraren inguruko jarrera positiboa eta kontzientzia izatea ezinbesteko elementua izan daiteke kondoiaren erabilera ziurtatzeko. Hala eta guztiz ere, ez dirudi nahikoa praktika sexualen erabakiak hartzeko unean. Gure ikerketan, kondoiaren erabileraren erabakietan, gorputzarekin loturiko sinismen-sistemek, kide sexuak eta egoera konkretuek garrantzia dutela nabarmendu da.



Maila horretan, gaixotasun infekziosoen irudikapen sozialen inguruan eginiko ikerketek arriskua gorputzaren dimentsioan kokatzen dute, gaixotasuna eta arriskua gorputzaren barnean eta gorputzen arteko harremanetan agertzen direla adieraziz. Arriskuaren eta kutsaduraren irudikapenak harreman sexualen nolakotasunaren eraikuntza soziokulturalekin lotuta daude, zeinean ohikoak ez diren harremanak arrisku handiagoa duten praktika sexual gisa irudikatzen diren (Joffe, 1998). Ideia horrekin bat, arriskua gorputzaren barnean kokatzen da, eta kutsaduraren edo infekzioaren transmisioaren irudia fluxuen trukaketa eta garbitasun kontzeptuei lotua agertzen da.

Nahiz eta gazteek ekintza sexual jakinek ondorio negatiboak sor ditzaketela aitortzen duten, badirudi, ondorio negatibo horiei aurre egiteko, distantzia psikologiko bat hartzen dutela, *besteari* kontzientzia eta erantzukizun falta egotziz. Mekanismo hori, arriskua *besteari* egozte, bestelako arriskuaren (adb. ebola) irudikapen soziala aztertu den ikerketetan ere agerikoa izan da (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2015).

Bestalde, emaitzek erakusten dute praktika sexualean arriskuaren esanahiak bikote edo kidearekiko harreman sozialaren araberrako adierak hartzen dituela. Zentzu horretan, gazteek, elkarrekikotasuna, berdinen arteko harremanak edota kideen arteko botere-negoziaketak aipatzen dituzte sexu-arriskuaren kudeaketarako alderdi garrantzitsu bezala. Elkarrekikotasun-harremanaren kasuan, fusioa eta lotura azpimarratzen da, ekintza sexuala seguru gisa irudikatuz. Berdintasunaren araberrako harremanetan, hau da, kideek elkarrekikotasun-terminoetan berdintasuna egotea espero dutenean, gazteek arriskua bestearekiko ziurgabetasunarekin lotzen dute. Azkenik, harremana botere-asimetrian kokatzen den kasuetan, arriskua erabaki autonomoa hartzeko zailtasunarekin lotzen da (Pulerwitz *et al.*, 2002; Teileman, Ratcliffe, Morales-Aleman eta Sullivan, 2008). Azken harreman-eredu horretan generoen arteko botere-harremanen eragina ageri da.

Azkenik, pertsonen egoera konkretuetan aurre egiten diote arriskuari, non bi ahots antagonikoren eragina nabarmentzen den. Batetik, erantzukizuna eta prebentzio-estrategia sustatzen duen portaera izatea iradokitzen duen ahotsa (betebeharra). Bestetik, egoerari lotua sortzen den portaerari begirako ahotsa (desira) (Trafimow, 2000). Gazteek tentsio horiek arrisku-terminoetan azaltzen dituzte eta festetan egiten den alkohol eta drogen gain-konsumoaren ondorioz jokaera prebentiboa izatearekin bateraezin bezala irudikatzen dituzte. Hori horrela, jendeak *egin nahi duena*-ren eta *egin behar duena*-ren arteko barne-gatazken ezaugarriak azaleratu ditu ikerketa honek.

Gazteek, egoera jakin batzuk arriskutsu edo segurutzat hartzen dituzte, eta arriskua praktika sexualen baitan irudikatzean *seguruaren* eta *ez seguruaren* arteko gatazkaren kontzientzia badutela ikusi da. Hori dela-eta, prebentzio-kanpainen, arriskuaren inguruko informazioa gizarteratzeaz gain, jendeak eguneroko bizitzan arriskuaz duen irudikapen soziala eta haren izaera soziokulturala kontuan hartu beharko lituzkete.

Lan honek prebentzio-kanpaina, sentsibilizazio-ekintza edota esku-hartzeetako ikuspegi eta edukiei ekarpena egiteko balio dezake. Esate baterako, praktika sexualekin lotzen diren harreman mota, egoera eta gorputzei buruzko sinesmen, espektatiba eta arau sozialak eztabaidatzeko; baita sexu praktika segurutzat eta arriskutsutzat jotzen ditugun sinesmen eta praktikak deseraikitzeo ere. Euskal testuinguruan egin diren azken ikerketa-lanekin bat eginez (Farapi, EHU, Medicus Mundi, 2016), gazteek maitasun eta sexuaren inguruan dituzten ideia eta praktiketan eragiteko proposamen praktikoetarako informazioa ematen du, eta baliagarria izan daiteke harreman afektibo-sexualen inguruko lanketa egiteko, heziketa-programak garatzeko eta esparru ezberdinetan pertsona arteko tratu on eta osasuntsuak sustatzeko.

Etorkizuneko ikerketa-ildo bezala, batetik, azaleratu diren emaitzen haritik, arriskuaren eraikuntzan genero-botere harremanek duten eraginean sakontzeko beharra agertu da. Zehazki, bikote-harremanetan eta topaketa sexualetan, kondoiaren erabileraren inguruko erabakiak zeharkatzen dituzten genero arteko botere-dinamiken inplikazioak jorratzearen beharra ikusiz. Bestalde, topaketa/kide sexualaren kasuan, arriskuaren kontzepzioa kideen orientabide sexualaren arabera aldakorra izaten dela aditzera ematen da; parte-hartzaileetako askok arriskua, gorputz-kontaktuarekin, fluxu sexualekin eta garbitasun-zikinkeria moduko ideiekin lotu dutela ikusita, interesgarria litzateke ideia horiek zer motatako praktika, topaketa eta kide sexualekin lotzen diren azterketan sakontzea. Lanketa horrek arrisku-praktikak zer identitate sozial/sexuali atxikirik agertzen diren ezagutzeko bideak erakutsiko litzuke.

## 5. Bibliografia

- Albarracin, D.; Johnson, BT.; Fishbein, M. eta Muellerleile, PA. (2001): «Theories of reasoned action eta planned behavior as models of condom use: a meta-analysis», *Psychological bulletin*, 127(1), 142-161.
- Braun, V. eta Clarke, V. (2006) «Using thematic analysis in psychology», in *Qualitative research in psychology*, 3(2), 77-101.
- Campbell, C. eta Jovchelovitch, S. (2000): «Health, Community and Development: Towards a Social Psychology of Participation», *Journal of Community & Applied Social Psychology*, 10(4), 255-270.
- Edelman, N. (2018): «Towards a critical epidemiology approach for applied sexual health research», *Journal of Health Psychology*, 23(2), 161-174.
- Farapi, EHU, Medicus Mundi (2016): *Amodioa, sexua eta osasuna. Gipuzkoako nerabe eta gazteek maitasunari buruz dituzte ideiak*, Donostia.
- Fiske, AP. (1992): «The four elementary forms of sociality: Framework for a unified theory of social relations», *Psychological Review*, 90, 689-723.
- Flores, F. eta de Alba, M. (2006): «El SIDA y los jóvenes: Un estudio de representaciones sociales», *Salud Mental*, 29, 51-59.
- Herek, GM. (1999): «AIDS and stigma», *American Behavioral Scientist*, 42(7), 1.106-1.116.
- Howarth C. (2006): «A social representation is not a quiet thing: Exploring the critical potential of social representations theory», *British Journal of Social Psychology*, 45, 65-86.

- Howarth C.; Foster, J. eta Dorrer N. (2004): «Exploring the potential of the theory of social representations in community-based health research—and vice versa?», *Journal of health psychology*, 9(2), 229-243.
- Idoiaga, N.; Gil de Montes L. eta Valencia JF. (2016): «Understetaing an Ebola outbreak: Social representations of emerging infectious disease», *Journal of Health Psychology*, 21, 1-15.
- Joffe, H. (1996): «AIDS research and prevention: a social representational approach», *British Journal of Medical Psychology*, 69, 169-190.
- , (1998): «Social representations of the AIDS field», *Psychology in Society*, 24, 21-29.
- , (2003): «Risk: From perception to social representation», *British Journal of Social Psychology*, 42, 55-73
- Joffe, H. eta Elsey, JWB. (2014): «Free association in psychology and the grid elaboration method», *Review of General Psychology*, 18(3), 173-185.
- Jovchelovitch, S. (2007): *Knowledge in context: Representations, community and culture*, Routledge, Londres.
- Lehmann, H. eta Töppich, J. (2009): «Communication of health risks: the example of HIV/AIDS prevention», *Bundesgesundheitsblatt, Gesundheitsforschung, Gesundheitsschutz*, 12, 52, 1.147-1.150.
- Linell, P. (2009): *Rethinking language, mind, eta world dialogically*, Information Age, Charlotte, NC.
- Liu, L. (2004): «Sensitising concept, themata eta shareness: A dialogical perspective of social representations», *Journal for the Theory of Social Behavior*, 34(3), 249-264.
- Marková, I. (2003): *Dialogicality and social representations: The dynamics of mind*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Markova, I.; Wilkie, PA.; Naji, SA. eta Forbes, CD. (1990): «Self-and-other-awareness of the risk of HIV/AIDS in people with haemophilia and implications for behavioural change», *Social Science & Medicine*, 31(1), 73-79.
- Moscovici, S. (1984): «The phenomenon of social representations», In RM. Farr eta S. Moscovici (ed.), *Social Representations*, Cambridge University Press, Cambridge, 3-71.
- O'Connor, C. (2016): «Embodiment eta the construction of social knowledge: Towards an integration of embodiment eta social representations theory», *Journal for the Theory of Social Behavior*, 47, 1-23.
- Pulerwitz, J.; Amaro, H.; Jong, WD.; Gortmaker, SL. eta Rudd, R. (2002): «Relationship power, condom use eta HIV risk among women in the USA», *AIDS care*, 14(6), 789-800.
- Rai, TS. eta Fiske, AP. (2011): «Moral psychology is relationship regulation: moral motives for unity, hierarchy, equality, and proportionality», *Psychological review*, 118(1), 57-75.
- Righetti, F.; Luchies, LB.; van Gils, S.; Slotter, EB, Witcher, B. eta Kumashiro, M. (2015): «The Prosocial Versus Proself Power Holder How Power Influences Sacrifice in Romantic Relationships», *Personality and Social Psychology Bulletin*, 41(6), 779-790.
- Sheeran, P.; Abraham, C. eta Orbell, S. (1999): «Psychosocial correlates of heterosexual condom use: a meta-analysis», *Psychological Bulletin*, 125, 90-132.
- Smith, N. eta Joffe, H. (2013): «How the public engages with global warming: A social representations approach», *Public Understetaing of Science*, 22(1), 16-32.
- Teitelman, AM.; Ratcliffe, SJ, Morales-Aleman, MM. eta Sullivan, CM. (2008): «Sexual relationship power, intimate partner violence, and condom use among minority urban girls», *Journal of interpersonal violence*, 23(12), 1.694-1.712.

- Trafimow, D. (2000): «Habit as both a direct cause of intention to use a condom eta as a moderator of the attitude-intention and subjective norm-intention relations», *Psychology and Health*, 15(3), 383-393.
- Vizeu, B. eta Bousfield, AB. (2009): «Social representation, risk behaviours eta AIDS», *The Spanish Journal of Psychology*, 12(2), 565-575.
- Wagner, W.; Duveen, G.; Verna, J. eta Themel, T. (2000): «I have some faith eta at the same time I dont believe in it. Cognitive polyphasia and cultural change», *Journal of Community and Applied Social Psychology*, 10(4), 301-314.



